

Kajoi edo Ama Birjina

UR bost urte, Arrasateko oadriek azken txikitoak nustradore gainean utzi eta Maritxu Kajoiri urteroko menaldia egitera hurbildu ziren, gertatu zen lehen mita. «Maritxu nora zoaz?» aldiz kantatu zutenerako, horren ondoren den iturri-riten hasi zen. Zortziak ziren, jendea «milagroa!», deadarka hasi zenean. Bi anduago guraso talde bat zitzaion festa batzordeari,enez haur asko orditzen ari zatzuz. Batzordekoak Mari-ningana jo zuten berriro, miraria mozt zezala, esaka Birjinaren ondoko iturria n hasi zen momentuan eta amababian, mutikoak ohean, ekin zion berriro ardoa. Goizeko seieta arte hiru ardo eman zituen Arrasateko Kalea Kafarnaum festibo-izuz.

Maritxu Kajoiak apenas duen urterik miraririk egirango urte batetan elur-ili zituen Ama Birjin horrek o kale zenbait, nahiz eta urutzeko eragozpen tekniko gairiditu izan behar ziren. Mutuak egunkari honi adierazi polispian xuria pliatutur-tilatuen eta haizegailuak-irik zituzten zortziak pun-bera has zedin, baina auri za-atek busti zuten elur sinteti-akal harturik teiltatura igo-ri zuten, Ama Birjinari mira- laguntzera.

Maritxu Kajoiak agin duen mirari natural bakarra iazkoa izan zen. Uda guztiak ez zuten euririk egin eta Ur-kuluko urtegitik ura garraiatzerik ez zenez gero, urik ere ez zuten arrasatearrek etxetean. Batzordekoek pres-tatua zuten halako mirari kaskar bat, baina uda guztian zehar euri tantarik egin ez eta zortziak aldean sekulako euri jasa hasi zuelarik, «milagroa!», «milagroa!» hasi ziren deadarka eta mirari bezala pasatuko da euri jasa hori Arrasateko historiara.

Aurtengoa ere ba omen du Ama Birjin horrek mirariren bat prestatu-rik, baina batzordekoek bakarrik eman dien horren ezagupidea. Sek-reta giltzapean gordeko da gaur gaueko zortzieta arte eta une hor-rretan bertan Arrasateko Erdiko Kalen bilduko diren milaka lagunek gertakari harrigarri bat ikusteko au-keria izango dute.

Alabaina, gizonak ez dira mirarie-tatik bakarrik bizi eta gaurko egunak emango du bestelako egitekorik ere.

Maritxu Kajoiaren omenezko jaiak ez ditu urte asko. Esaten denez, Ama Birjin honek betidanik izan du herriko txikiteroen debozioa. Zirkuito jakin bati jarraiki egiten da herri hor-rretan erronda, Arrabal, Olarte, Sor-gin Kantoia, Erdiko kaletik Portaloira doan bidea segituz edatendituzte ba-soerdiak eta beti ere norabide horri jarraituz, alderantziko noabideari «karlisten buelta» deitzen baitiote herri horretan. Sorgin Kantoitik Erd-iko kaletik barrena, edaniko ardoen kontabilitatea eramateko, Maritxu Kajoiaren azpian hartzen zuen ema-danko buelten kontua. Hortik omen

dator txikiteroen Maritxurenganako debozioa.

Beste batzuen ustetan, ordea, gaurko festa honen sustraia beste ix-torio batetan oinarritzen da. Urtee-tan zehar besteren kontura ardoak edaten zituen herritar bat ba omen zen Arrasaten, norbaitek basoerdia ordaintzean, ardoa Maritxu dage-neko aldera jaso eta «Por Maritxu» brindisa egiten zuena. Handik sortu omen zen Maritxu txikiteroen zain-dari gisa entronizatzeo ideia.

Arrasaten San Joanetan egiten dira herriko festak eta udaldiaren ha-siera denez gero, jendeak kanpora joateko ohitura hartu du. Abuztuan zehar ere, herritar gehienek kanpoan egiten dituzte oporrak eta urriko festa hau bilakatu da herritarrentzat urteko jai nagusia.

Bestalde, urteetan zehar Arrasa-teko kale bakoitzak bere festak bu-rtutu ditu. Erdiko kalekoek urte ba-tan Maritxu Kajori eta hurrengoan Portaloiko Amari eskaintzen zizio-ten beren festa eta hor ere aurki dai-teke gaurko festa honen beste su-strairen bat.

Egun horretarako gizonezkoak nahiz emakumezkoak traje dotorez jazten dira. «Belle epoque»-eko tan-keran. Horretarako aitona-amonen-gandik jasotako trajeak berriro kon-pondu eta erabiltzeko moduan jarri dituzte asko eta askok. Txikitearen tradizioari jarraiki, arratsaldeko Getan hasiko da festa, ez baitute nahi batzordekoek lanaren ondo-rengo festak duen grazia hori eza-batu nahi.

J. AGIRRE



folk talderik onenak Itziarren.

aburu artean, Andaluziako autoktonoan dauden herri manifestapenak nekazal-kerespetatzea. Bi disko ka-rtuz eta hirugarrena mar-ko.

1980. urtean sortu zen. Gai-dira. Beraien lana osokrea-otzoten dute jakitunek, folk-ko eboluzionatuan eta tradi-

zioan oinarritutakoak dira beraien kon-positaketa. Galiziar folklorea eta zelta musika daude konposizio guztien atzean.

Cormac: Salamancan sortu zen 1981ean. Zelta musikari lotuta jai-oen, Helburuen artean, garai batean zeltak okupatu zuten Castillako her-rialdeetan geratutako musika tradi-zionala sakontzea da.

Gure aldetik bi gauza esan nahi genituzke, hasteko herri musika, tra-dizionala eta folka baino zabalagoa dela, eta hori beste herrietan ere egi-ten dela. Bestalde Galeuska supe-ratu dela esatea, eta horren truke Es-tatu Espainoleko markoan erortzea (bretoiak, okzitanoak, korsoaik... ez daude urriti) ez dela zalantzarik gabe aurrera egindako pauso bat.

gastronomia

Ura edarien erregina

Gastronomia ofizialak muzin egin diourari: ecologoek bi moeta baka-rrik bereizten dituzte, garbia eta ku-tsatua eta jakituraren materializazio diren hiztegi potoloek definizio guz-


tiz kamutsa eman ohi dute edari ho-netaz.

Ura ez da kolorerik eta zaporerik gabea, alderantziz baizik.

Haurtzaroko oroitzapenek marka-tzen dituzte geroko gusto gastrono-mikoak. Oroitzapen horiek guztiz bo-rraezinak dira. Nik bederen, edonon plato bat eskatzen dudalarik, haur-tzarora dastatu eta gogoratzen ditu-dan gustoein gonbaratzen dut beti eta gauza bera gertatzen zait ma-haian jartzen duten urarekin. Insaluz trago bat egiten dudalarik ezin nai-teke haurtzaroko ur desberdinekin gonbaraziorik egiteke gera et» jakin badakit zer plastizitate, gusto, za-pore dituen.

Haatik ikusten dut beharrezkoa le-henbaitlehen Euskal Herriko iturrien katalogo bat egitea. Horrela edonork haurtzaroko itzuli bat egin dezake, gida horren indikazioei jarraiki ur bila eskursioak burutzuz. Guk bede-ren Euskal Herriko iturri famatuenean zerrenda burutzen hasi gara eta izango dugu abagunerik horretaz ar-gibiderik emateko. Tamalez alor ho-netan ere uniformetasuna ari da na-gusitzen eta zenbait herritan lehen zegoen iturrien auzintzasunaren gale-ran herriko kanil guztietara iturburu bereko ura bideratu dute. Jendeak baluke politika horren kontra zer esanik eta badago zer eginik halaber hezketaaren alorrean, guztiz komeni-garria baita eskolatik hasiz haurren gustoen hezketa sakon bat burutzea, iturri desberdinetako urak bereizten ez dakitenei ikastaro bereziak eska-niz.

J. AGIRRE



igandeak

Zazpigarren eguna

Zer egiten duan igandean? ... Eta nik al dakit! Ez dut igandetarako pro-gramarik --pro-gramarik, aldiz aurre-tik idatzitakorik, alegia--; ez dut egi-taraurik; ez dut ordutegiari begiratu beharrik. Egutegiari bakarrik begira-tzen diot: kolore gorritz, ostiralaren eta larunbataren ondoren datorrena badakit igandea dela.

Txikitatik ikasi nuen kristau dotri-nan igande edo domeka jai egitekoa eta gordetzeko nuela; ez nuela lenik --beharririk-- egiterik, mezataroa joateko eguna nuela eta ospatzeko zela Jaunaren Eguna. Gerora kontu-ratu naiz hiru erlijio monoteistek bat datozela honetan behintzat: zazpiga-rren eguna dutela gizon-emakumeek bizitzako «beharrari» ihesegitekoa eta horren dohaina --doantasuna-- ospatzeko eta bizitzeko: izadiarena, lagunartearena, Jainkoarena.

Jakinduria horrix atxekitzen na-tzaio igandean: zazpigarren egunare-nari. Ez dakit nork asmatua den as-teburuaren izena; oso berria da. Badirudi aste osoaren sintesia direla zapatu-domeka. Nerretaz ez dira an-titesia, baina sintesia ere ez. Astea

(as-tea) eta igandea (igan-tea) harre-man dialektikoan daude nerretaz; behararen eta dohainaren dialek-tika, asteginek ezartzen didaten be-harrene legetetik ateratzeko eguna izan ohi da igandea. Lana ez al da beharra bizkaieraz? Eta tratua arazo euskaraz?

Baina erlijioak eta filosofiak aparte, zertarako hartzen duan igandea? Berak ematen duenerako: doantasunerako. Egunkaria irakur-tzen dut lasaitasunez, edota auke-rrak liburuaren bat. Mendira joaten, nahiz --izadiaren dohaina--. Adiski-deak eta sendiak bisitatzeko egunik aproposenak izan ohi ditut --adiski-detasunaren dohaina--. Jaunaren eguna mezarekin ospatu ohi dut fe-dedunen elkartetarekin --otoitzaren doantasuna--. Al Etz hemengo mila jaialdi ekinaldi herritarrek? Igande, ugari betetzen dizkirate horiek ere. Sarri kamar dagokit etxeko bazkaria atontzea ere: anaiarteko domeka zerbitzua.

Zer gehiago? Horiek eta abar. Ez dute «zereginak» definitzen nere igandea. Halakotan ematen dut eta beste halakotan hartzen. Hortik doa nere igandea. Zertan be-tetzen duan? Eginean eta egonean.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

